



ADOS AHOLKU BATZORDEAREN INFORMAZIO-ZIRKULARRA

6. zba.

2022ko UZTAILA

ADOS Eusko Jaurlaritzak sortutako Aholku Batzorde bat da, euskal erakundeen eta Euskadiko Komunitate islamikoen arteko lankidetzara sustatzeko sortua. 2018ko apirilaren 14an eratu zen. Ordutik, urtean gutxienez bost aldiz bildu da. Batzorde horretan euskal erakunde guztiek eta komunitate islamikoetako kideek parte hartzen dute. Bileretan bizikidetzara sustatzeko lan egiten da, eta helburua da Euskadiko komunitate islamikoen arazoei irtenbideak bilatzea.

EZAGUTZATIK BIZIKIDETZARA: GAZTEEN ARTEKO ANIZTASUNARI ETA BIZIKIDETZARI BURUZKO PROIEKTU PILOTUA

ADOS Batzordearen helburuetako bat gazteen artean kulturen eta erlijioen arteko bizikidetzara, pluralismoaren defentsa partekatua eta mobilizazioa esperimendatzea eta sustatzea da, bai erlijioa aitziakiatzat hartzen duen indarkeriaren aurrean, bai xenofobiaren, islamofobiaren edo arrazakeriaren aurrean.

Horretarako, ADOS Aholku Batzordeak, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren laguntzarekin, bost eguneko bizikidetzako esperientzia pilotu bat aurrera eramango du, erlijio- eta kultura-aniztasun handiko gazteen talde batekin.

Bizikidetzara Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban garatuko da, eta lurralde historiko bakoitzeko mendi bat igoko da. Gailurrak Jaizkibel, Pagasarri eta Gorbeia izango dira, hurrenez hurren. Gainera, jarduera horiei gizarte-izaerako beste jarduera batzuk ere gehituko zaizkie, jangela sozial bat eta adinekoen egoitza bat bisitatuz; kulturen arteko ezagutzari dagokionez, hainbat erlijio-sinesmenetako kultu-zentroak bisitatuz.

Azkenik, sormenerako ere lekua izango da, parte hartzen duten gazteek nabarmendu nahi dituzten balioak irudikatuko dituen horma-irudia eginez.

Horrela, helburu espezifiko bat lortzea espero da: bidaia-ondoren, parte-hartzaileek esperimendatzea, tradizio kultural eta erlijioso desberdina izan arren, gizartean elkarguneak eta balio komunak daudela.

“Auzolana” kontzeptua transmititzeko lehen urratsa izatea espero du ADOS Batzordeak, hau da, mundu bidezkoagoa eta iraunkorragoa lortzeko konpromiso aktiboa duten herritarrak, aniztasuna errespetatu eta baloratzearen, ingurumenaren defentsaren, kontsumo arduratsuaren eta giza eskubide indibidualen eta sozialekiko errespetuaren alde eginez.

Bestalde, ADOS Batzordearen asmoa da esperientzia horrek etorkizuneko edizioak izatea beste neska eta mutil gazte batzuekin, horizonteak zabaltzeko eta aniztasunaren aberastasuna ezagutu nahi dutenekin, bizikidetzaren eta berdinen arteko elkarrizketaren bidez.

**Bidaia on bat opa diegu
parte hartzaileei!**

BERRI LABURRAK

LAGUNTZA-SAREAK EHUNTZEN GALDAKAO

Aurten, Galdakaoko Aperribai auzoko emakume arabiar talde batek auzokideei beren ohiturak hurbiltzea erabaki du, bazkari herriko baten bidez, kolektibo horri ahotsa emateko, ezagutzak eta kultura partekatze eta guztientzako ingurune seguru eta askea ahalbidetzeko topagune bat sortzeko, elkarrekin modu integralagoan bizi ahal izateko.



Bazkarian 40 pertsona inguruk eman zuten izena, eta komunitatetik eta komunitaterako lankidetzak sustatzeko prest agertu ziren. Hala, hitzordu hori festa bihurtu zen, non bizipenak partekatu eta auzoko pertsonen arteko harremanak estutu ziren.

ARKUMEAREN JAIA

40.000 eta 50.000 musulman artean bildu dira berriro, COVID-19ak eragindako pandemiaren bi urteren ondoren, arkumearen (3id Kabir) festa ospatzeko, euren familiarekin, lagunekin eta auzokideekin batera, Euskadiko udalerrietako meskita, plaza, frontoi eta etxebizitza partikularretan.

Gainera, bi urte hauen ondoren, Marokok mugak ireki ditu, eta, beraz, pertsona askok –Euskadiko herritarrak, besteak beste– familia bisitatzera joatea erabaki dute egun seinalatuotan, egun hori gertukoekin ospatzeko.

ADOS Batzordetik, Euskadin arkumearen jaia ospatu duten pertsona musulmanek Marokon duten berotasun eta gertutasun berarekin jai hau gozatu izana nahi dugu.

3id mubarak denei!



RAMADANAREN AMAIERA

Andoaingo Zumeatarra elkarteak 'Su-artean Gure-artean' ekimena jarri du abian, hainbat jatorritako bizilagunak hilean behin bildu daitezzen bertaratutako pertsonaren baten errezetaren bat prestatzeko.

Horrela, joan den maiatzaren 5ean, proiektua osatzen duten pertsonak Ramadanaren amaiera ospatu nahi izan zuten. Saio gastronomiko horretara berrogeita hamar pertsona heldu eta haur inguru joan ziren, eta herriko bizilagun musulmanen eskutik oilasko tajina, Aid gozokiak eta marokoar eta mauritanar teaz gozatu ahal izan zuten.



ADOS BATZORDEAREN AZKEN BILERA

ADOS Aholku Batzordeak ekainaren 4an egin zuen azken bilera. Euskal gizartean sustraitutako islama sustatzeko lanean jarraitzen dugu, hainbat ekintzaren bidez.



ADOS Aholku Batzordea
Comisión Asesora ADOS
اللجنة الاستشارية أودوس

945 017 940
adosbatzordea@euskadi.eus
Navarra, 2 / 01007 Vitoria-Gasteiz

Euskadi, auzolana, bien común

